Sebastian Mendibururen mendeurrena

Etzi beteko dira berrehun urte Aita Sebastian Mendiburu josulaguna Bolonia-n hil zela. Oiartzunen jaio zen 1708. urteko irailaren 2an. Irakasle, misiolari eta bereziki euskal idazle suharra izan genuen. Horregatik, egun hauetan anitz ospakizun ditugu bere jaioterrian.

Hamazazpikin sartu zen Jesusen Konpaiñian eta eliz ikasketak bukatzean Iruiñan gelditu zen, lehenik Filosofia eta gero Teolojia irakasten. Predikari ona omen zen nonbait eta hogetamar urtez ihardun zen herriz herri predikari, bereziki Nafarroa garaian. Iruiñan berriz, San Zernin deritzan elizan, solasaldiak euskaraz egiten zituen, garizumako iganderik gehienetan, euskaldun hutsak ziren morroi eta neskameentzako. Baina Mendibururen hizkera garbi ta suharra entzuteagatik, beste anitz eta anitz, euskaraz mintzatzen ez bazekiten ere, aditzeko hainbat zekitenek, haren predikura joaten omen ziren, A. Andres Lizartzak Bigarren ***Euskalegunetako Itzaldiak*** *(1923) bilduman dionez.*

Hizlari trebea zen bezala, idazle ere taxura berekoa zen. Predikuetan erabiltzen zituen gaiez osatu zituen zenbait liburu. Idazkeran, hizkuntzaren garbitasunari eta edertasunari asko begiratzen zion. Lehendik oiartzuarra izatez, Nafarroa garaiko euskalkiz kutsatua bazen ere, bizitzako parterik gehienean bere egoitza Nafarroako hiriburuan izateak eta inguruko herrietan ibiltzeak taiutu zuen bere euskara. Tamalgarria zitzaion euskarazko libururik eza eta euskararen batasunik eza. Hala aitortuko zigun: "Galdu dira, euskarazko librurik gabez, euskarazko anitz hitz; eta gelditu direnak, ez dituzte euskaldun guziek aditzen. Badira Gipuzkoan, Nafartar gehienek, euskarazkoak izanagatik, aditzen ez dituzten hizketak. Baita Nafarroan ere Gipuzentzat berriak diruditenak: eta Gipuzkoako ta Nafartarren bazter batzuetan aditzen dira, beste askotan aditzen ez diren zenbait hitzegite. Nonnahi adi ditezkeenak billatu ditut, ahal eginean, hartzen ditudala horretarako, euskarazkoak utzirik, beste zenbait hitz". ***Jesusen Bihotzaren Debozioa*** *(bigarren argitalpena, 1751).*

Maite zituen Aita Larramendiren lanak. Horregatik zion: Badugu bizi garenok, eta izango dute gure ondokoek, nondik atera, behar den guzia, edetzeko ta apaintzeko euskarazko hizkera leuna. Ondasun hau, guziok zor diogu Aita Larramendiri".

Lizartzat zion, bere aditzaren joritasuna eta ugaritasuna ikusteko, begira diezaiogula Dodgson-eh ***Jesusen Bihotzaren Debozioa*** *deritzaion Mendibururen libruari erantsiriko* ***Indice de las 1.220 formas del verbo empleadas en éste libro*** *delako lanari. Horrez gainera, euskara beraren hitzezko erabilkera baliatzen zuen, hitz bakoitza dagokion tokian eta eran erabiltzeaz.*

Argitaratutako lanak, guziak erligio gaiak, lehen lehenik aipatutako ***Jesusen Bihotzaren...,*** *Donostian 1747an azaldua, gero beste zenbait argitalpen ezagutuko zituena eta 1883 Gregorio Arruek gipuzkeraz jarritakoa.*

Bigarrena, ***Jesusen amore-nequeei dagozten cenbait otoitzgai,*** *hiru tomotan Iruiñan argitaratua, 1.759-1.760 urteetan. Lan ber-bera 11 tomo txikitan ere argitaratu zen, denbora berean. Orkaiztegik bultzaturik, Tolosako Eusebio López Mendizabalen etxean berriz argitaratu zen, hiru tomotan baina H guztiak kenduta. Ikusten denez, letra koxkor honek orduan ere zereginak eman zituen.*

Hirugarrena, ***Euskaldun onaren viciera, mezaren entzun-vide labur erreza...*** *Iruiñan bertan 1.762an, gero, 1.765ean birargitaratuko zena.*

Horiez gainera, beste zenbait lan utzi zituen argitaratu gabe. Hoietatik, 1922an A. Jorge Agirrek grafiaz ikuturik argitaratu zuen Bilbon ***S. Franzisko Xabier'en bederatzurruneko irakurraldiak.*** *Gainerakoak, urteko igande ta jai guztietarako* ***Irakurgaiak,*** *bi liburutan, orainarte argitaratu gabe zeuden eta Patxi Altunak preparatu ditu mendeurren hontan argitaratzeko, eta* ***Mendibururen idazlan argitara gabeak*** *izenburuz txosten baten bidez aurkeztuko du heldunen larunbatez, hil honen 17an, Oiartzunen bertan.*

Egun hortan, Euskaltzaindiak, bere hileroko batzarra ere Oiartzunen izango du mendeurrenaren ospakizunez, herriko ikastolan, arratsaldeko sei t'erdietan herriari begira hitzaldi laburrak azalduz. Alkate eta euskaltzainburuaren agurrez gainera L. Mitxelena, P. Altuna eta M. Lekuona mintzatuko dira Sebastián Mendibururen bizitzaz eta lanez.

Hizkuntzaren idazkeraz balio handikoa genuen, [illegible] rakoan, bere pentsamenetitakoa, aski ilunu eta [illegible] gia iduritzen zaigu gaur egungo pentsamoldeei begi[illegible] rik. Hau ere esan beharrezkoa iduritzen zaigu.

Karlos III.ak 1.767an Jesuitak Espainiatik bota[illegible] nean, Bolonian aurkitu zuen babes lekua eta han [illegible] hil zen 1.782ko uztailaren 14an.

Juan SAN M[illegible]

Esta semana se celebrará en Oyarzun el bicen[illegible] rio del fallecido R.P. Sebastián de Mendibu[illegible] buru, misionero, profesor de humanidades y [illegible] euskara, nació en Oyarzun el 2 de septiembre de [illegible] a los 17 años ingresó en la Compañía de Jesús. [illegible] en Loyola y Pamplona y, tras la expulsión de los [illegible] tas por Carlos III, falleció en Bolonia el 14 de [illegible] 1.782.

Destacó como misionero predicador en áreas [illegible] nas de Navarra y en la iglesia de San Cernin de [illegible] plona por espacio de treinta años. Regentó las [illegible] de Filosofía y Teología, a petición del obispo de [illegible] plona. Propagó la devoción al Corazón de Je[illegible] fundó asociaciones para su culto. Por su elocuen[illegible] lenguaje depurado, fue llamado Cicerón vasco. [illegible] Era, además, un hombre muy laborioso: [illegible] varias obras de tema religioso en vascuence. [illegible] Dodgson reeditó el primero de sus libros con [illegible] de las mil doscientas veinte formas verbales empleadas en el mismo. Lo que indica la riqueza de su [illegible] Su segunda y la más amplia de las obras [illegible] **Otoitzgai** conoció hasta tres ediciones, y una [illegible] obra, **Euscaldun onaren viciera...** Otras quedaron [illegible] tas. En 1.922, Jorge Aguirre publicó el mono[illegible] San Francisco Javier, y, el presente año, con [illegible] la conmemoración de su fallecimiento. Patxi Altuna [illegible] preparado sus obras inéditas de cuyo contenido [illegible] informe el próximo día 17 en un acto que [illegible] conjuntamente el Ayuntamiento de Oyarzun y la [illegible] tzaindia. En la que intervendrán, además del alcalde [illegible] señor Altuna, el ilustrísimo alcalde de dicho [illegible] el presidente de Euskaltzaindia y los académicos [illegible] Manuel Lecuona y don Luis Michelena.

Liburu bitxi bat

Gauzak **nork** *ikusten dituenaren arauera izaten direla gauza jakina da. Nork eta nola, hobeto esan. Beti izan da honela eta gizona gizon den bitartean ez dut uste formula honek aldaketarik izango duenik. Historia, gehienetan, era honetaz izan da idatzia, denok ezagutzen dugun bezala. Eta batzuek "zuri" esaten dutenean besteek "beltz" jartzen digute. Giza-joera hau ez dakit nola mugatzen, ezta egin daitekeen ere. Agian, gizonaren erreakzioak hain mugaezinak dierenez gero, alperrik ihardungo ez ote genukeeen pentsaterazten gaitu baldintza horrek.*

Egia ez dela alderdi batekoa maiz entzun dugu eta, umore on apur batez, baieztapen honen aurrean poztu egin beharko ginatekeela deritzait, ikerpenetan eta mendeetako gorabeheretan murgiltzeko aukera ematen baitzaigu. Honela, nork bere historia idatzi ahal izango luke, hots, gogoko aldaera guztiek apainduta. Pertsona guztiek ez dute idazteko zaletasunik azaltzen eta, beraz, ezin daiteke guztion eritzi desberdinak irakur. Baina aurreko ondorioa zuzen doala frogatu nahian, gure errefrau zahar batek dioena gogoratu nahi dut: **zenbat buru hainbat aburu.** *Honi filosofia herrikoia deritzaio.*

"Manual para viajeros por el País Vasco y Navarra, y lectores en casa" izeneko liburua eskuetaratu berri zait. Bere horrialdeetan Richard Ford bidaiari inglesak 1.835 inguruan gure herrialdeetatik zehar eginiko txangoaren berri ematen digu. Gizon hau, itxuraz, bere emaztearen osasuna hobeagotzeko Sevillan jarri zuen etxea eta, aukera aprobetxatuz, Espainiako hainbat lurralde zaldiz bisitatu zituen.

Liburuaren horrialdeetan barrena nindoala harridurak hartzen ninduen, nigan, lerroz lerro txundidura gorpuzten ari zela konturatzen nintzelarik. Gure herrialdeak bisitatu dituzten bidaiari askoren eritziak irakurri ahal izan ditut eta, noski, denetariko usterik ezagutu dut. Baina Ford honen aburuak aparteko bilduma batetan eukitzeko direla esango nuke. Hain bitxiak diren! Nere Herriaren gaineko irudi desberdinik nuenez gero jota utzi nautela aipatu behar dut.

Euskaldunei buruzko azterketa egiten saiatzen da ehun horrialde inguruan, eta horko zenbait harribitxi ekarri nahi dut hona, irakurleak Ford-en "mezua"-z jabe dadin. Don Quijoteren aipamen bat egiten duelarik, euskal nobleteria odolean datzala dio Ford-ek eta ez moldeetan, ez baitira euskaldunak sarritan prest azaltzen merezi duenari ohorerik eskaintzeko. Eta **desertuko asto basatiekin** *alderatzen ditu ingles honek euskaldunok.*

Lanari dagokionez ez dut uste asmatu zuenik ***"el vasco no es trabajador ingenioso"*** *esaten baitu. Beharbada, nik diot, honexegaitik izango da ondoko baieztapenean irakur dezakeguna:* ***"Los escudos de armas, tan grandes como el orgullo de sus dueños, están esculpidos sobre los portalones, y contienen más cuarteles que sillas hay en el cuarto de estar o cosas de comer en la despensa, pero el orgullo y la pobreza apagan aquí el fuego de la cocina".***

Ez dirudi Ford-ek gure sukaldaritzari buruzko oroitzapen onik eroan zuenik, eta behe mailako jendea honela aztertzen du, jateko ohiturak deskribatzen dituela: ***"Son frugales, más bien a causa de su pobreza que de su voluntad... Siempre que se les pone delante comida y bebida las consumen en la cantidad que sea y se aprovisionan en la tripa para veinticuatro horas por lo menos, por estar siempre inseguros de volver a tener otra oportunidad parecida".***

Eta gure foruak ezin zitezkeen Ford-en liburuan aipatu gabe gera. Ezin uka ikerketa labur eta xehe bat dagienik, eta eritzi asko aurretik dakarrela dirudi: ***"los expertos en economía política de Madrid siempre han considerado que estos privilegios eran inventos trasnochados dictados por necesidades medievales..., y en la práctica es cierto que respiran un aislacionismo local mezquino..."*** *Une batez, euskal lege zaharren alde irten nahian dabilela ematen du:* ***"los vascos han temido, con razón, las doctrinas modernas del centralismo, que corroe las libertades locales",*** *baina laster gogoratzen digu okertua geundela:* ***"... tarde o temprano los fueros vascos acabarán por ser abolidos, siempre y cuando pueda formarse un gobierno —Espainiakoa, noski— realmente fuerte".***

Baina ez da gauza honela amaitzen, Gernikako Juntetxéa balorerik gabeko harritzar bat dela aipatzen baitu, bertan ***"los senadores vascos, con sus chaquetas de marinero, al estilo francés, rematan la ruina de todas las asociaciones nacionales, primitivas y pintorescas".*** *Euskaldun gaineko nolakotasun hauen zerrenda amaitu behar dut eta liburuan agertzen diren beste zati batzuen bidez egingo dut. Zenbatu, irakurle:*

a)"El vasco sobrevalora su propia ignorancia tanto como menosprecia la inteligencia de los otros".

b)"Los vascos, de oídos de cuero, se deleitan con cualesquiera otros sonidos atroces".

d)"El Urumea se cruza por medio de un largo puente de madera o bien por medio de barcas, en las que reman las mujeres, si es que se puede aplicar el género femenino a estos engendros anfibios".

Harrapazak. Adeitsu eta ondo hazia irten zitzaigun Albion Zaharreko Richard Ford hau. Ezta ala? Ez horregaitik.

Jose Mari VELEZ DE MENDIZABAL

"Nada es verdad ni mentira, todo es del color del cristal con que se mira". Acertada aseveración. El mecanismo puesto en marcha por el subconsciente-consciente de la persona hace que la interpretación de un mismo hecho sea efectuada de distinta manera por individuos diferentes, llegando incluso a que condiciones externas variables hagan juzgar un suceso de forma distinta por el mismo individuo. Endrike Knörr nos recordaba en su pregón de fiestas de San Prudencio del presente año que Robert Walpole, al pedir que le leyeran algo en su lecho de muerte, ponía como condición que no fuese historia, "pues debe ser falsa".

Y es que, si tratamos de [illegible] tunidad, todos [illegible] sobre historia, dando [illegible] tra particular visión [illegible] hechos, con lo que [illegible] bien el estado de cosas [illegible] complicaría en extremo [illegible] la menor duda de que [illegible] mos en amenaza [illegible] cada uno de nosotros [illegible] tando las opiniones de [illegible] vecinos.

Invito al lector a que [illegible] vista un poco a la [illegible] salirse del artículo, [illegible] que en letra bastante [illegible] cluye en el texto [illegible] trozos entrecocidos de [illegible] que acabo de leer [illegible] "Manual para viajeros [illegible] País Vasco y Navarra, y [illegible] en casa" escrito por [illegible] mado Richard Ford [illegible] nuestro País a mediados [illegible] pasado.

A través de las [illegible] mente, cien páginas [illegible] nual, se recoge una [illegible] de nuestras costumbres [illegible] ciones, pueblos, [illegible] en ciertos momentos [illegible] acertada, si bien en [illegible] ilustre sibilino de [illegible] Majestad simplemente [illegible] sado.

Existen variadas [illegible] sobre expresiones [illegible] sados siglos por [illegible] nuestras provincias [illegible] nido serio y equivocado [illegible] nos de ellos han sido [illegible] había confirmado la [illegible] los vascos no [illegible] ombligo del mundo [illegible] Sr. Ford, tampoco [illegible] ponernos así [illegible] so?